

Bide-laguna

E. Evtuchenko
Euskaratzailea: Igotz

Buru-zapi izugarritz
aringa lotua
mortxildun txapel polit gaiñean,
lubeta ertzean
ezarrita egoan
begiak blei-blei malko etsitan.
Noizean bein
mitxeletak
burdin-bideetaraiño jasten ziran.
Arein oiñetan
txatar urdin arolak.
Ni lez, amamagandik
urrin aurkitzen zan
alemanak gure bultzia bonbaz jotean.
Katia eritxon.
Beratzi bat urte eukazan,
eta nik ez nenkian beragaz zer egin.
Baiña laster eratzi neban
neure larria:
A, neure babespean
jarri bear neban.
Mukuzu bat zan,
baiña nik bertan-bera itxi
ezin neikean emazteki bat.
Motorren burrundara entzuten zan
bat-bateko eztanda-otsez nahasia;
orduko
urrin egaz joiazan.
Ukondoa ikutu neutson:
«Entzun,
zer dagizu or jesarrita?
Goazen!»
Lurrak ez eban mugarik,
eta gu txikitxoak.
Ari ibilli eragitea, oso zailla nunbait.
Katia'k uleunezko bortzegi beroak
jasten ebazan zurezko mandoakaz,
eta nik oski erraldoi batzuk.

Itsuka
bide egin genduan
oianean zear.
Nire oiñak,
aurrerantzako ekin bakotxean
oski barruan emon bear eben beste bat.
Nik neure kautan:
«Neskato samur au
intzirika asiko yat,
negarrez».
Ez dautso bideari eutsiko,
bildur nintzan,
mizka ta losintzale jarriko yatalakoan.
Baiña
neu nintzan bide-nekeaz akitua.
Purrust nik:
«Ez nabil ni geiago!»
Eta lurrean jarri nintzan,
zelai gaiñean.
Eta arek:
«Zer dozu?
Ez egizu tentelkeririk esan.
Bedar-izpiz bete egizuz oskiak.
Gose al zara?
Zergaitik erantzun ez?
Tira,
artu egizu zangurru-lata au.
Ia, zuzpertu ta indar-barritu gaitezana.
Zuok, mutillok,
itxuraz bakarrik
zarie bipil».
Barrero be
aren auzo
bideari ekin neutson
galtzu-ondo gaiñetik,
arrosko samar.
Zerbait irakiten neukan
neure barruan,
gizakiaren urgulua bear bada.
Indarrak atera
ta lazkiro eutsi neutson.
Baita be,

aren destaiña esaeren bildurrez,
txistuka asi nintzan zoli-zoli.
Nire oski ondatuetatik bedar zirriztak
agiri ziran.
Eten barik
bide gengian guk,
bonba-zulo andiak,
solo-zelai kiskalduak inguraturik.
Berrogei ta batgarreneko zeruak,
keezko meta zabal jagiak eutsita,
dardar egian.